

# Erdiko estalkiaren zaharberritzea erritmo onean doa

Erdiko nabeko estalkiak zaharberritzeko lanak aurreikusitako planaren arabera doaz aurrera, eta hori izango da eraikinaren goiko espazio osoa berreskuratzeko lanak egiteko azken urratsa. Esku-hartzeak, gainera, estalkipean plataforma panoramiko berri bat instalatzeko atea irekiko du.

Testu honekin batera doan argazkian ikus daitekeenez, egurrezko egitura eta material iragazgaitza jartzeko lanetan aurrerapauso nabarmenak eman dira. Teilak jartzeko beharrezko aurretiazko urratsa da. Eraikina birgaitzeko lanak abian jarri zirenetik ohikoa denez, katedraletik bertatik berreskuratutako materialak erabili dira, eraikinaren jatorria errespetatzen duten material berriein batera, zaharberritze homoginoa eta iraunkorra bermatzeko.

Erdiko estalkiko esku-hartzea duela zenbait urte transeptuko estalkietan egindako lanen jarraipena da, eta elementu berezi berri bat sartzeko atea irekitzen du: plataforma panoramiko bat estalkipean, dorretik hurbilen dagoen eremuan; bertatik katedral bat eraikitzeo sistemaren ikuspegi ezin hobea lortu ahal izango da.



Bisita gidatuen esperientziaren parte izango den elementu horrek, bere osotasunean bisitatu daitekeen Erdi Aroko katedral bakarrenetakoa bihurtuko du

Santa Maria katedrala, kriptetatik hasi eta estalkietaraino eta dorreraino, pertsona guztientzako irisgarritasuna bermatuta.



## Katedralaren berreraikuntza birtuala, tesi baten protagonista.

Mario Alaguero Rodríguez, Burgosko Unibertsitateko Humanitate eta Komunikazio programako doktoregaiak, joan den abenduan aurkeztu zuen bere doktore tesia: "Los niveles de detalle en la reconstrucción virtual de núcleos urbanos históricos: estudio del caso de Vitoria-Gasteiz en el siglo XII"

Fátima Gil Gascón irakasle eta doktoreak zuzenduta, proiektu plataforma paregabea da Errealitate Birtuala ondarea berreraikitzeo tresna bultzatzaile gisa aintzatesteo, eta humanitate digitalen paradigma zabaltzeko. Tesiak Gasteizen XII. mendeko berreraikuntza birtual batean oinarritutako proba esperimentalak jasotzen du, hainbat xehetasun-mailatan. Katedraleko bisitariek euren borondatez hartu zuten parte lan horretan, tesiaren egileak diseinatutako galdetegia betez. Lankidetzara horri esker, analisi kualitatibo eta kuantitatiboetarako emaitza estatistiko sendoak eta erabakigarriak sortu dira.

argazki: @rodrigomenarui

Elkarren ondoan: Fundazioaren eta Gasteizko Udaleko zerbitzu teknikoaren arteko lankidetzak

## I. Kultura Zerbitzua



Triforiotik Berriak aldizkariaren azken zenbakietan, Arabako Foru Aldundiko beste zerbitzu tekniko batzuekin izan dugun lankidetzak zehazten aritu gara. Hala ere, Fundazioaren egunerokoan beste erakunde batzuetako pertsonekin ere egiten dugu lan, hala nola Gasteizko Udalarekin eta bertako sailekin. Zenbaki honetan, Udaleko Kultura Zerbitzuko pertsonekin dugun lankidetzak azpimarratu nahi dugu. Antolatzen ditugun jardueretan baliabideak partekatzen ditugu beraiekin.

Erakunde publiko gisa, egunerokoa ahalegintzen gara ematen dugun laguntza gizarteari itzultzeko, zuzenean edo gure baliabideak beste ekimen batzuekin partekatuz. Udaleko Kultura Zerbitzuan lan egiten dugunok eta Fundazioko lantaldeak arlo publiko hori partekatzen dugu, eta antolatzen diren hainbat ekitalditan lankidetzan aritu ohi gara.

Batzuetan, kultura-sailak katedralaren azpiegiturak erabiltzen dituzte kaleko kultur

jarduerari laguntzeko, hala nola Erdi Aroko Merkatuan edo Kaldearten. Beste batzuetan, parte hartzen duten artistak Katedralako Aterpetxean hartzen dute ostatu, eta beste batzuetan, berriz, gu gara Udalaren laguntza eskatzen dugunak gure jardueretako batzuk gauzatzeko. Urrutira joan gabe, eskerrak eman nahi dizkiogu Kultura Zerbitzuari Erdi Aroan girotutako arropa eman digulako bisita gidatuen programaren parte diren gure Errealitate Birtualeko 360 bi-deotarako.

## Katedrala, Fitur-eko hitzorduari leial

Santa Maria Katedrala Euskadiko elementu erakargarri turistiko nagusietakoa izango da berriro urtarrilaren 24tik 28ra Madrilen egingo den Fitur-en, Nazioarteko Turismo Azokan. Azken edizioetan bezala, Katedralak presentzia nabarmena izango du, bere 'Obretan eta Irekita' programaren erakargarritasunari eta 'Errealitate Birtuala Esperientzia' izenekoaren bidez gero eta gehiago izan diren bisita gidatuei esker. Horren guztiaren ondorioz, Santa Mariak interes handia pizten jarraitzen du erreferentziako nazioarteko ekitaldi horretara hurbiltzen diren pertsonen artean.



Jarrai gaitzakezu